


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak %0,9 gutxitu dira 2019ko martxoan

2019ko lehen hiruhilekoaren balantzean %1,4ko aurrerapena izan da

Eustaten arabera, lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2019ko martxoan %0,9ko urte arteko jaitsiera izan dute Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek, prezio finkoetan. 2019ko otsailaren aldean salmentak %0,3 gutxitu dira urtaroen eraginik gabe.

Elikagaien salmentek 2019ko martxoan azalera handietan eta elikadura-kate handietan %2,0ko murrizketa eduki dute eta gainerako salgaienak %1,6ko gehikuntza aurreko urteko hil beraren aldean.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Lurraldeetan zeinu ezberdineko aldakuntzak gertatu dira urte artean: Bizkaian %0,1eko gehikuntza izan da, baina Gipuzkoan %2,2ko jaitsiera eta Araban %1,9koa.

2019ko otsailaren aldean, elikagaien salmentak %0,7 gutxitu dira eta gainerako salgaienak %0,5 igo, prezio finkoetan eta urtaroen eraginik gabe.

Lurraldeetan, 2019ko otsailaren aldean berriz ere, prezio finkoetan eta urtaroen eraginik gabe, Bizkaian eta Araban %0,2ko jaitsiera izan da kasu bietan, eta Gipuzkoan %0,5koa.

Langile-kopurua Euskal AEko azalera handietan eta elikadura-kate handietan %3,1 gehitu da aurreko urteko hil beraren aldean, eta %0,2 gehitu aurreko hilaren aldean.

2019ko lehen hiruhilekoaren balantzea

Euskal AEko azalera handietan eta elikadura-kate handietan izandako salmenta metatuek urtearen lehen hiruhilekoan %1,4ko gehikuntza eduki dute aurreko urteko aldi beraren aldean. Elikagaien kasuan azalera handietan eta elikadura-kate handietan, salmenta metatuek %0,4ko igoera izan dute; gainerako produktuenek, %3,3koa.

Lurraldeka, %2,2 hazi dira Bizkaian salmentak, %0,5 Gipuzkoan eta %0,1 Araban.

Bestalde, enplegaturiko langileak %3,0 gehitu dira 2019ko lehen hiruhilekoan.

1. taula. Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Martxoa. 2019

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-0,9	-0,3	1,4
Araba/Álava	-1,9	-0,2	0,1
Bizkaia	0,1	-0,2	2,2
Gipuzkoa	-2,2	-0,5	0,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	-2,0	-0,7	0,4
Beste produktuak	1,6	0,5	3,3
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	3,1	0,2	3,0

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62